

ESKAERA-GUTUNA: ESAPIDEAK eta LOKAILUAK

1. Sartu hutsuneetan esamolde egokia.

Itziar Agirresarobe
Bideluize ikastetxea
01010 Extondo

Extondon, martxoaren 28an

Zuzendari jauna:

DBHko 1. mailako ikasleak gara, eta jolastokiaren harira idazten dizugu, une honetan dauzkagun espazioak eta haren antolaketak ez dituelako dauzkagun beharrak asetzen, gure ustez.

_____ (1), azken urteetan gora egin du ikasle kopuruak, eta _____ (2), jolas eremua oso txikia geratu da denontzat. Futbol zelaia hartzen du leku gehiena, eta ez dugu balomanora, pilotara... jokatzeko bestelako jolastokirik. Futbolzaleak asko diren arren, ikasle gehienak inguruko txokoetan eta pasabideetan ibili behar izaten dugu, oso espazio murriztean.

_____ (3), leku faltaren ondorioz, hainbat taldek udaleko beste kirol instalazioetara joan behar izaten dugu Gorputz Hezkuntzako orduetan. Eta joan-etorriak denbora kentzen die ordu horiei.

_____ (4), _____ (5) jolastokia handitzea eta espazioa beste era batera antolatzea modu bilatzeko eskatu nahi genizuke. Inguruko baserrietatik ikastetxera egin den moduan, ohiko korrikalarien espazioaz gain, bestelako ekintzak egiteko guneak sortzea gustatuko litzaiguke; _____ (6): tirrinaren bat, eskalatzeko horma, jolasteko lekua, eserita egoteko espazioa, neguan mahai-jolasetan ibiltzeko txoko itxi bat, txirristak, zabuak... _____ (7), denontzako jolastokia izatea nahi genuke, txiki zein handientzat, neska zein mutilentzat, kirolzale direnentzat zein ez direnentzat.

_____ (8),

Mila esker,

DBHko 1. mailako ikasleak

Beraz

Adibidez

Horren ondorioz

Egoera kontuan hartuta

Eskaera kontuan hartuko duzuelakoan

Izan ere

Horrez gain

Denok dakigun moduan